Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

5670

EBAZPENA, 2010eko urriaren 22koa, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariarena, zeinen bidez jakinarazten baita Serfolan – Servicios Integrales de Formación y Trabajo elkarteak uko egin diola Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 17ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzari. Agindu horren bidez, hain zuzen ere, generoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu eta deitu ziren.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren 2010eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez, generoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu eta horietarako deialdia egin zen. Ebazpen hori kontuan hartuta, Serfolan – Servicios Integrales de Formación y Trabajo elkarteari lau mila zazpiehun eta laurogeita sei euro eta hogeita hamahiru zentimoko (4.786,33) diru-laguntza eman zitzaion, hain justu ere, «Emakumeen duintasuna» izeneko proiektua egiteko (Espedientea: ASO/53/2010).

2010eko urriaren 8an, Naiara Elorrieta Elorriaga andreak – Serfolan – Servicios Integrales de Formación y Trabajo elkartearen izenean eta ordez– egindako idazkia jaso zen (sarrera-erregistroko zenbakia: 869393). Bertan jakinarazten zen uko egiten zitzaiola ASO/53/2010 proiektuari («Emakumeen duintasuna»).

Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 17ko Aginduaren 10.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (agindu horren bidez, generoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu eta horietarako deia egiten da) «diru-laguntza eman zaiela jakinarazten duen agiria jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean, erakunde eta elkarte onuradunek zehazki eta idatziz honi uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da».

Esandakoaren ondorioz, honako hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

5670

RESOLUCIÓN de 22 de octubre de 2010, de la Directora de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género, por la que se hace pública la renuncia de Serfolan - Servicios Integrales de Formación y Trabajo, a la ayuda económica concedida para organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas de la violencia de género, al amparo de lo dispuesto en la Orden de 17 de marzo de 2010, del Consejero de Interior.

Mediante Resolución de 18 de agosto de 2010, de la Directora de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género, se resuelve y hace pública la concesión de ayudas económicas a las organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas de la violencia de género. A este tenor, se otorga a Serfolan - Servicios Integrales de Formación y Trabajo una ayuda económica de cuatro mil setecientos ochenta y seis con treinta y tres céntimos (4.786,33) euros para el proyecto presentado por dicha asociación bajo el título «Emakumeen duintasuna», Expediente ASO/53/2010.

Con fecha 8 de octubre de 2010, registro de entrada 869393, se recibe escrito de Dña. Naiara Elorrieta Elorriaga, actuando en nombre y representación de Serfolan - Servicios Integrales de Formación y Trabajo, comunicando su renuncia al proyecto ASO/53/2010 «Emakumeen duintasuna».

En virtud de lo establecido en el artículo 10.3 de la Orden de 17 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, por la que se regulan y convocan las ayudas a organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas de la violencia de género, «si en el plazo de quince días contados a partir del día siguiente de la notificación de la concesión de la subvención, las organizaciones o asociaciones beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada».

Por todo ello,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Serfolan – Servicios Integrales de Formación y Trabajo elkarteak aurkeztu duen ukoegitea onartzea; hain zuzen ere, genero-indarkeriaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu eta deitu zituen Herrizaingoko sailburuaren 2010eko martxoaren 17ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzari egin dio uko. 2010eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez eman zen diru-laguntza hori, zehazki, lau mila zazpiehun eta laurogeita sei euro eta hogeita hamahiru zentimo (4.786,33), elkarteak aurkeztutako proiekturako («Emakumeen duintasuna», ASO/53/2010 espedientea).

Bigarrena.– Ebazpen horrek ez du administraziobidea agortzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango diote interesdunek Herrizaingoko sailburuari, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluak betez.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 22a.

Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko zuzendaria,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia presentada por Serfolan - Servicios Integrales de Formación y Trabajo a la ayuda económica concedida para organizaciones y asociaciones que promuevan la prestación de atención, solidaridad y apoyo a las víctimas de la violencia de género, al amparo de lo dispuesto en la Orden de 17 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, otorgada mediante Resolución de 18 de agosto de 2010, por importe de cuatro mil setecientos ochenta y seis con treinta y tres céntimos (4.786,33) euros para el proyecto presentado por dicha asociación bajo el título «Emakumeen duintasuna», Expediente ASO/53/2010.

Segundo.– Contra la presente Resolución que no pone fin a la vía administrativa podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Interior, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación, de conformidad con los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2010.

La Directora de Atención a las Víctimas
de Violencia de Género,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.